



UNAI OTAÑO ▶ AIZKOLARIA

«Ezkutuan lan egin dutenei eskaini nahi diet txapela»

IBARRA ▶

Lehen Mailako Aizkolari Txapelketa irabazi berri du

GARAIPENA ▶

«Hasieran ezin nuen sinetsi», aitortu du aizkolariak ▶ 6



Sutea arratsaldean piztu zen. n. u.

TOLOSA ▶

Sutea eragin dute Olarrain auzoko inguruko mendian

Dirudienez, eskale batek eman zion sua atzo arratsaldean, bi leku ezberdinetan ▶ 3



I. GARCIA

Bost egunetarako eztanda egin du jaiak

ZIZURKIL ▶ Haurren txupinazoarekin ekin zioten Elbarrenako jaiiei; Pirritx eta Porrotxen emanaldiak jendetza bildu zuen ▶ 5

VILLABONA ▶

Elikagaien XII. Azoka Berezia egingo dute etzi herriko plazan

Irrintzi elkarteak antolatuta, kalitate handiko eta artisau eran egindako produktuak erosteko aukera izango da ▶ 4

TOLOSA ▶

Luis Iruretagoienari bizi arteko kartzela zigorra jar diezaioketela ohartarazi du Parisko fiskalak

Atzo eraman zuten Parisko epailearen aurrera deklaratzera, larunbatean atxiloturiko beste hiru lagunekin batera ▶ 2

Kale Nagusia 45
943 247 469

o'baba
KALTEZUA

Razioak, otartekoak eta pintxoak

TOLOSA ▶ POLITIKA

'Suni'ri bizi arteko kartzela zigorra aplika diezaioke

Luis Iruretagoiena ustezko etakide tolosarra larunbatean atxilotu zuten Frantzian, eta fiskalaren aurrean deklaratu du



Atzo zuzentza jauregiaren aurrean talde bat elkartu zen, kartelak jartzeagatik bi lagun atxilotu izana salatzen. Batek epailearen aurrean deklaratu beharko du ertzain bat «erasotzea» egotzita. ASIER IMAZ

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean Cahorsen (Frantzia) atxilotutako ustezko etakideei bizi arteko kartzela zigorra jar diezaiokeela esan du Parisko fiskalak, Jean Clau de Marinek, hain zuzen ere. Atxilotutako artean, Tolosako Luis Iruretagoiena *Suni* dago. Atzo arratsaldean deklaratu zuten epailearen aurrean.

Luis Iruretagoiena, Alaitz

Aramendi, Oihan Barandalla eta Ander Mujika dira larunbatean atxilotutako lauak, eta atzo arratsaldean eraman zituzten Parisko epailearen aurrera. Besteak beste, Orioko familia bat bahitu izana leporatu diete. Larunbatean atxilotu zituzten, eta Frantziako Poliziaren esku egon dira orduak.

Bizi arteko kartzela zigorra jar diezaioke fiskalaren arabera, pilatuko lizkieketen aku-

sazioak direla eta. Hain zuzen, Orioko familia bat bahitu egin izana leporatu diete. Baita, besteak beste, armak eduki eta lapurreta batean parte hartu izana ere.

Atzo arratsaldean pasa ziren epailearen aurretik, Parisen. Lehendabizi, haien kontrako kasua daraman epailearen aurrera eraman zituzten, eta gero, behin-behinean haien aurkako zer neurri hartu erabakiko

duen epailearen aurrean; hots, espetxeratzeari buruzko erabakia hartuko du bigarren epaile horrek.

Polizia frogen bila

Polizia iturrien arabera, lehergaiak egiteko lekua zuten Cahorsko etxean. ETaren azken atentatuekin harremana izatea ere leporatzen diete; hala nola, abenduaren 30ean Madrilen ezandarazitako bonba-autoarekin eta orain egun batzuk Castellon (Herrialde Katalanak) zartarazi zutenarekin.

Auzitegi Nazionalako epaile Santiago Pedrazen aginduz, polizia espainoleko eta Guardia Zibileko hainbat agente estatu frantsesera joango dira heldu diren egunetan, Cahorsen egindako polizia-operazioan atzemandako materiala aztertzeko eta bertan atxilotutako lau ustezko etakideen kontrako frogak bilatzeko.

Hainbat mobilizazio izan dira azken egunetan atxilotuen jaioterrietan haien askatasuna eskatuz.

Kartelak jartzeagatik

Hain zuzen, aurreko larunbatean *Suniren* atxiloteta salatzen manifestazioaren deialdiko kartelak jartzen ari zirela. Ertzaintzak bi gazte atxilotu zituen ordu gutxitara aske utziaz epailetan zain. Lehen gaztea atzo epaitu behar zuten baina «deliturik ez zegoenez, falta arina» leporatu zioten eta 30 euroko isuna ordaindu beharko du.

Bigarren atxilotuak, berriz, epailearen aurrean deklaratu beharko du, nahiz eta oraindik eguna zehaztu gabe egon. Honi, ertzain bati «muturreko bat ematea» leporatu diote, nahiz eta lekukoek eta gazteak berak ekintza hau ukatu.

ALEGIA ▶

Aralar BHI institutuko lehen eguna, astelehenean

10:00etan hasi eta bi orduz egongo dira, eta irailean goizez izango dira eskolak



Aralar institutua. J. GOIKOETXEA

ERREDAKZIOA

2007-2008 ikasturteari begira, Alegiko Aralar BHI institutuak bertako ikasleei ikasturtearen hasiera noiz izango den ezagutzera eman du. Datorren astelehenean izango da, 10:00etatik 12:00etara. Irailean zehar eskolak goizez izango dira bakarrik.

Egun horretan bi autobus izango dira eta lehenengoa 09:30ean abiatuko da Amezketako elizatik, ondoren Abaltzisketako, Amezketako, San Martin eta Larraizko ikasleak hartuko ditu. Ondoren, Ugarten geldituko da.

Bigarren autobusa ordu berean Baliarraingo plazatik aterako da eta Ikaztegiatiko eta Aitzoko ikasleak ere jasoko ditu.

berria bekak 2007

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **8 beka**, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.000 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietan

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**

Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.000 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2007-09-07

Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragai

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

TOLOSA ▶

Astlehenean hasiko da ikasturte berria

Samaniegok astlehenean, hilaren 10ean, hasiko du ikasturte berria, 09:00etatik 13:00etara. Autobusek ohiko zerbitzua egingo dute.

TOLOSA ▶

Udaberriren ikastaroetan izen-ematea

Udaberriren ikastaroetan izen emateko bihar egongo dira egoitzan taldekideak 18:00etatik 20:00etara. Halaber, haurren zerrendak egoitzako atean daude jarrita.

TOLOSA ▶

Hegats igeriketa denboraldia hastear da

Astlehenean, hegats igeriketako denboraldia hasiko du Tolosaldea IKTk. Animatezen denak, hilaren 10, 11 edo 12an agertu beharko du, 19:15ean Usabalen. 11 urtez gorakoa izan behar da.

TOLOSA ▶

Musika Eskolako ikasturtea gaur hasiko da

Eduardo Mocoroa Tolosako Udal Musika Eskolak gaur hasiko ditu ikasturte berriko eskolak.

ELKARTASUNA ▶

Bi hilabete gurean igaro ostean, berriro ere etxera

Igande honetan bueltatuko dira saharar gaztetxoak euren etxeetara; Leitzaldekoak abuztuaren 25ean joan ziren



Tolosan, abuztuaren 25ean antolatutako saharar egunean, jolasak eta bazkaria izan zituzten. G. EIZAGIRRE



Beste hainbat ekitaldiren artean, Ibarrako jaietako danborradan hartu dute parte sahararrek. G. EIZAGIRRE

IÑIGO TERRADILLOS

U da gure artean igaro ostean haur sahararrei heldu zaie berriro ere Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetara bueltatzeko unea. Hain zuzen ere, uztaillaren erdialdera iritsi ziren eta igande honetan hartuko dute euren etxeetara eramango dituzten hegazkina.

Denera 13 gaztetxo izan dira aurten Tolosaldera etorri diren neska-mutilak. Horietatik biren zatitza lehenengo aldia izan da, eta familiei dagokionez, aurreko urteekin alderatuz, 5 familia berri izan dira. Bi hilabete hauetan, egin beharreko mediku azterketa egin eta gero, denetarik egiteko aukera izan dute. Hainbat saharar festatan parte hartu dute, eta horien artean Adunan uztailean eginkoa, eta Tolosan abuztuaren 25ean egindakoa. Azken honetan, urtero legez Plaza Berrian elkartu ziren Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak, haur sahararrak eta euren familiak, eta tea dastatzeko, jolasteko, eta bazkaria egiteko aukera izan zuten, besteak beste. Ekitaldi hauetaz gain, Txiki Parkera eta hondartzara egin dute irteera, eta Ibarrako San Bartolome jaietako danborradan ere parte hartu dute gaztetxoek, besteen artean.

Bestalde, Leitzaldean ere, urtero bezala, izan da sahararren bisita, 3 gaztetxorena, hain zuzen. Hauen kasuan, elkarrekin egindako ekitaldi nagusia abuztuaren 5ean izan zen saharar elkartasun bazkaria egin zuten eta 50 lagun inguru elkartu ziren. Tolosaldekoak baino lehen, abuztuaren 28an, bueltatu ziren Leitzatik errefuxiatuen kanpamentuetara.

TOLOSA ▶ EZBEHARRA



Sutea eragin dute Olarrain auzoan

Erredakzioa ▶ Atzo arratsaldean, 16:30a inguruan, Olarrain auzotik igarotzen den trenbidearen atzeko aldean sutea eragin zuten bi leku desberdinetan, 200 metroko tartean. Udaltzaingoak azaldu zuenaren arabera, «eskale batek eragin du, bertaratu garenean topatu baitugu eskuan poxpoloak dituela». Suhiltzaileek sutea kontrolatzea lortu zuten eta sugarrak baserri baten ingururaino ere iritsi ziren arren, ez zen kalterurik izan. N. URBIZU

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Emakume euskalduna behar da etxeko lanetarako eta 2 ume zaintzeko. 656 76 64 39/ 943 67 54 89.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Espaner Breton arrazako txakur txuri-marroia topatu dute Gaztelun. 1-3 urte bitartekoa. Txiparik gabe. 665 71 21 88.

Donostialdeko enpresa batek AGENTE KOMERTZIALA BEHAR DU GOIERRIN eta DONOSTIAN - ERREFERENTZIA: 07-AGK

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Merkataritza kontratua.
- Soldata interesgarria.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea

Kontuan hartuko da:

- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali irailaren 20 baino lehen. gizabaliabideak@jarduna.net
HELBIDE ELEKTRONIKORA. Gogoan izan erreferentzia zehatzea

ZIZURKIL ▶

Asteartetan jasoko dituzte altzari eta traste zaharrak

Zizurkilgo Udalak altzari eta traste zaharren bilketari buruzko oharra kaleratu du. Horren arabera, bilketa astean behin egingo dute, asteartetan. Altzariak zabor edukiontzien ondoan utziko dira astelehen gauean, eta aldezturik 902 119243 zenbakian abisua utzi behar da zenbat eta zer motatako altzari eta non utziko diren adieraziz. Oharrak zehazten duenez, debekatuta dago altzariak eta gainerakoak udal zerbitzuek jarritako egun eta ordutegitik kanpo uztea edota orube pribatu zein publikoetan.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Jesusen Bihotzako ikasturte hasierako datak

Jesusen Bihotza Ikastolak ikasturte honen hasiera datu jakinarazi ditu. Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzako ikasleak hilaren 10ean, astelehena, hasiko dira. HHkoak (3, 4 eta 5 urteko haurrak) 09:30etik 12:30era ariko dira. LHkoak, berriz, 09:00etatik 12:30era. DBHko ikasleek (1., 2., 3. eta 4. mailakoek) gaur izango dute aurkezpen eguna. Horretarako 12:00etan elkartuko dira Ikastolan.

VILLABONA ▶ GASTRONOMIA

Elikagaien XII. Azoka Berezia antolatu du Irrintzi elkarteak etzi

Artisau eran eta kalitatezko produktuak izango dira plazan; elkartearen arteko XIII. Isatsa Gisatu Lehiaketa ere egingo dute



Irrintzi elkarteko kideak azoka berezia iragartzen duen kartelarekin elkartearen bertan. I. GARCIA

JUAN LUIS ECEIZA ▶ SUKALDARIA ETA UXO-TOKIKO KIDEA

«Isatsa gozoagoa da egun bat lehenago prestatuta»

IMANOL GARCIA

Villabonako Elikagaien XII. Azoka Berezia antolatu du Irrintzi elkarteak etzi. Goiz guztian zehar kalitate handiko eta artisau eran egindako hainbat produktu erosteko aukera izango da herriko plazan, Euskal Herriko zein Errioxako (Espainia) txoko ugarietik etorritako saltzaileek eskainiko dituztenak.

09:30ean jarriko dute martxan azoka. Barazkiak, fruta, gaztak, ardoa, eztiak, pateak, gozoak, Ibarako piparrak, ogia, sendabelarrak... eta beste hainbat produktu aurkituko ditu erosleak. Azokako lehen hiru postu ederrenei sariak banatuko dizkiete.

Azokarekin batera, ohi bezala, Isats Gisatuaren XIII. Lehiaketa antolatu dute; eskualdeko hamar elkarte hartuko dute parte: Villabonako Irrintzi, Behar-Zana eta Zunbeltz, Amasako Uxo-Toki, Zizurkilgo Urkamendi eta Ibaiertz, Asteasuko Santamaña eta Aitzondo, Larraulgo Katillutxulo eta Adunako Txulobi. Prestatzen den isats gisatuarekin, 5 kilo inguru banatzen dizkiete elkarte bakoitzari, bazkaria egiten dute Irrintzin eta bertan parte hartzen dute elkarteetako kideek eta azokako saltzaileek.

Euskal Herriko

onddoen gida liburua


Aranzadi Zientzia Elkarteari esker, Euskal Herriko 110 perretxiko ezagunen zerrenda ekarri dugu liburu honetara. Perretxikozaleentzat gida ezin hobea: perretxiko bakoitzaren ezaugarriak, nola bildu, gordetzeko teknikak, intoxikazio arriskuak...

Euskal Herri osoko 110 perretxiko ezagunenak

- 110 perretxikoak banan-banan: ezaugarriak, habitata eta jangarritasun maila
- Perretxikoen mundura bidaiatu
- Perretxikoak egoki biltzeko azalpenak
- Intoxikazioen aurrean zer egin
- Perretxikoak kontserbatzeko metodoak



Irailak 8, larunbata
kartilla + 1. kupoia berriarekin



Iazko Isats Gisatu Lehiaketan Amasako Uxo-Toki elkarteak eraman zuen saria. Sukaldaria Juan Luis Eceiza (Villabona, 1963) izan zen iazkoan eta aurten ere berak prestatuko du.

Nola prestatu behar da isatsa?

Isatsa aurretik prestatu behar den janari bat da. Goxoagoa da egun bat lehenago egin eta hurrengo egunean jatea. Iaz ostiralean prestatu nuen. Gero lehiaketara ezin nuen joan eta Andoni Galarraga eta Joxe Ramon Begiristain joan ziren aurkezpena egitera. Gero deitu egin zidaten irabazi egin genuela esateko eta asko poztu nintzen.

Zer osagai gehitzen dizkiozu?

Tipula, azenarioa, piperra, barakxuria eta tomatea botatzen dizkiot. Gero hori ondo goxatu behar da isatsarekin eta pazientziarekin hartu. Ardo beltza ere botatzen diot eta gero hori murriztu egiten da. Isatsa haragai gogorra da, baina egositza xamurra gelditzen da.



I. GARCIA

Hiru bat orduz-edo egoten da egosten.

Iaz irabazi ondoren, aurten ere errepikatu nahiko duzu garalpena.

Iaz prestatu nuen egunean lana egin behar izan nuen eta aurten oporretan nagoenez, pazientzia gehiagorekin egitea izango dut. Lehengo urtean irabazita animatuta nago. Egia esan, ni ogibidez sukaldaria izanik, gehiago dut galtzeko

horrelako txapelketetan. Maila ona egoten da, sukaldariak izanik gabe elkarteetan eta janariak prestatzea gustatzen zaiona.

Jaki bezala gustatzen zaizu isatsa?

Bai gustatzen zait. Gaur egun plater landuagoak gutxi egiten dira. Pazientzia eta denbora behar izaten da eta orokorrean jendeak ez du horretarako aukerarik. ◀

ZIZURKIL ▶ JAIK

Bost egunez festan

Haurren txupinazoarekin ekin diote Zizurkilen Elbarrenako jaiari; jende asko izan zen Pirritx eta Porrotx ikusten

IMANOL GARCIA

Hasi dira Zizurkilgo Elbarrenako jaiak eta iganderarte iraungo dute. Atzo arratsaldean ematen zioten hasiera Beti Argi eta Hizkilipai blusako haurrek. Geroago gauean, txupinazo ofizilaren txanda izan zen, Beti Argi blusako eskutik. Aurreko urteetan ez bezala, haurrek ez zuten bertsozik abestu eta pregoi bat irakurri zuten suzuria bota aurretik.

Ohi bezala jendetza izugarria bildu zen Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldian. Urtero bezala, festen lehen ekitaldietako bat izaten da eta Zizurkilgo haur eta gurasoak ez ezik, inguruko herrietakoak ere erakartzen dituzte. Joxe Arregi plazan festetarako jarri duten karpa guztiz hartuta zegoen. Aurten *Mari Motots* emanaldia aurkeztu dute.

Atzo arratsaldeko beste ekitaldietako bat Elbarrena zelaiaren jokatzeko futbol

EGITARAUA ▶ GAUR

11:00. Haurrentzat parkea Joxe Arregi plazan: zeren mekanikoa, puzgarriak eta ziklotrititate zirkuitoa.

17:00. Buruhandiak.

17:30. Haurrentzako jokuak: muralak margotzea, jokuak eta haurren dantza erakusketak.

19:00. Unsain Anaiak, trikiti festa.

00:00. Kontzertua: Asier Serrano eta Apartheid taldeekin.

Ondoren. Karaokea.

partida izan zen. Dirudienek urtero gazte gutxiago elkartzen dira futboleko aritzeko. Aurreko urteetan auzoen arteko txapelketa edo Zizurkil Goi-koen eta Behekoen artekoak jokatu dituzte, baina azken bi urteetan futboleko jokatu nahi dutenak elkartu eta beraien artean aritzen dira.



Pirritx eta Porrotx pailazoen *Mari Motots* emanaldia eman zuten plazan; alboan, haurren txupinazoa. i. g.



Atzo arratsaldeko futbol partidaren une bat. i. GARCIA



h hitza h

Praktikak HITZAn

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa
lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko
ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 behe- atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

eka

Testuliburu eta material osagarrietan aditza

www.ekar.com

ARRASATE • BILBAO • BERGARA • BILBO • DOMOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IZENA • TOLOSA

UNAI OTAÑO ▶ LEHEN MAILAKO GIPUZKOAKO AIZKOLARI TXAPELDUNA

«Txapela hor ezkutuan lanean dabilzaneie eskaintzen diet»

Iragan larunbatean Unai Otaño ibartarrak Gipuzkoako Lehen Mailako Aizkolari Txapelketa irabazi zuen Donostian ia aurreikuspen guztiak hautsiaz

ASIER IMAZ

Kazetari askok aizkolariei sarritan galdetzen diete ea zergatik goran daudenak beti berdinak eta urteetan aurrera doazenak diren. Joan den larunbatean Lehen Mailako Gipuzkoako Txapelketa Unai Otaño (Ibarra, 1977) gazteak irabazi zuen, Joxemari Olasagastiri bi minutu atera zizkiolarik. Egunkariet ordea, albisteari emandako garrantzia ikusirik, agian nahiago izango zuten Olasagastik txapela jaztea, berriz ere galdera berdina egiten jarraitzeko.

Lehen Mailan jokatu duzun lehen finala izan da Gipuzkoako Txapelketa?

Lehenengo urtean Gipuzkoako eta Euskal Herriko 2. Mailako txapelak irabazi nituen. Urte horretan ez daukazu Lehen Mailan jokatzetik, urte bete itxaron behar baita horretarako. Ondorioz, aurten jokatu dut lehen aldiz Lehen Mailan.

Ekonomikoki gastua gastuarren gainean?

Kirol honek duen gauzarik txarrena hori da. Ikusteko polita da baina ekonomikoki kostu handia du. Sariak ere oso eskasak dira. Lehen Mailako Gipuzkoako Txapelketa irabazteagatik adibidez, 900 euro besterik ez dira. Bigarren Mailakoa irabazi nuenean, berriz, 300 edo 400 euro ziztrin besterik ez ziren.

Hori zenbat aizkora dira?

Batere ez. Aizkorek 200 eurotik gora balio dute eta bat puskatuz gero akabo. Kamioi bat egur ekartzin baduzu berriz, 2.500 euro kostatzen zaizu. Aizkoran ibiltzea kapritxo bat bilakatzen da azkenean. Nik kapri-



A. IMAZ

txo hori daukat eta etxekoan laguntzaz eramaten dut aurrera azkenean.

Olasagastik Donostiako Aste Nagusian sariak kritikatu zituen.

Urrezko Kopa edo Donostiako Aste Nagusian egiten den probaren harira etorri ziren kritika horiek. Irabazlearentzat 1.000 euro bakarrik zeuden. Pentsa zenbat milioi gastatzen diren Aste Nagusian suekin bakarrik; hori kritikatzin zuten. 14 kanaerdiko ebakitzera joaten dira, ia orduerdiko lana eta 1.000 euro bakarrik irabazlearentzat. Lotsagarria dela esaten zuten. Ibarra edo beste herri txiki batean esaten baduzu, bueno, baina Donostia batean; izugarriko aurrekontuak mugitzen direnean Aste Nagusian, normala ez dela esaten zuten.

Nola joan zinen finalera?

Nerbioekin izaten ditut arazoak nik, baina oraingo honetan nahiko lasai joan nintzen.

Igeldokoaren 11. txapela espero zuten gehienek.

Olasagasti jotzen zuten denek faboritotzat. Txapartegi bigarren aterako ote zen ere bazioten. Nik berriz nire esperantzak nituen. Etxean egindako denborak plazan egin ezker, aukerak ikusten nituen bigarren edo lehenbizi geratzeko.

Olasagasti bi minutura utzi zenuen.

Lehen egurra eta bigarrena berak aurretik bota zituen. Hirugarrenean kolpe batera nintzen eta laugarrenean parean ginen. Oinbikoetan alde egin nion eta zazpigarren eta zortzigarren enborrerako ia minutu bat ateratzen nion. Faborittoa bera zen baina gertu nuela ikusten nuen. Laugarren enborretik aurrera, aizkoran bera

baino gehiago ari nintzela ikusi nuen eta txapela jazteko aukerak nituela. Horrek beti indarra ematen dizu. Erritmoa mantenduz, txapela jazteko aukera handiak nituela esaten nion nire buruari, bai bainekin berak gora ez zuela egingo.

Txapela jaztean?

Aurrena ezin nuen sinetsi. Olasagastiri irabazteak barruan zeozter egiten dizu.

Maila bat igo duzu.

Bai. Horiei aurre hartzeak, bes-te jauzi handi bat esan nahi du. Horiek baitabilzta elite mailan.

Nori eskaini diozu irabazi berri duzun txapela?

Niri laguntzen dabilzaneie. Aita, osaba eta entrenatzailea (Nemesio Arregi). Hor ezkutuan lanean dabilzta horiei.

Olasagastiri Lasarekin irabazi zenion apustua. Orain bakarrik tokatzen al da?

Aurrena lehen mailako Euskal Herriko txapelketa daukat buruan. Lan txukun bat egin nahiko nuke, txapel hau lortu izana kasualitate bat ez dela izan erakutsi nahi dut.

Eta apustuari begira?

Ez dakit. Denboraldia luzea izan da. Lehen Mailan, bigarrengoan baino tentsio handiagoa izaten da eta horrek gehiaren kargatzen zaitu. Apustua etortzen bada, ikusiko dugu. Ez bada etortzen ere, ez da ezer gertatuko. Lehenik behintzat, Euskal Herrikoa amaitutakoan opor txiki batzuk hartzeko asmoa dut; gero ikusiko da.

Eta berak botatzen badizu?

Gipuzkoako Txapelketa amaitu eta aldagelan bertan bota zidan apustua berak. Erdi brometan-edo ez dakit. Baina hori horrelaxekoa da; horri saltsa gustatzen zaio.

IBARRA ▶

Gaur 19:30ean EAE-ANVk deituta batzarra Subegin

Ibarrako EAE-ANV deituta batzarra egingo dute gaur 19:30ean Subegin. Bertan aztertuko duten gaia udalgintza izango da; herritarrei bertara azaltzeko eskatu die- te EAEn zerrendakideek.

LIZARTZA ▶

Udal bilkura eta elkarretaratzea bihar goizean

Bihar 18:00etan hasiko dira Lizartzan jaiak baina goizean, alde batetik udal bilkura burutuko dute 08:30ean Regina Otaola eta PPrek kideek. Beste aldetik, udaletxe aurrean elkarretaratzea egingo dute herritarrek 08:00etan Lizartzako EAE-ANVren kideek deituta. Hauen esanetan, «jaietan bandera espainola jartzeko aukerak daude, udaletxeko balkoian hiru bandera edo ikur jartzeko oinarriak jarri baitituzte». Oraingoaz ikurrina bakarrik aurkitzen da zintzilikaturik.

BERASTEGI ▶

Biasterira irteera Gaztainondotik, hilaren 12an

Berastegiko Gaztainondo jubilatutako elkarretaratze Biasteri (Araba) eta Logroñora (Errioxa, Espainia) irteera antolatuta du hilaren 12an, asteazkena. Herriko plazan 08:30ean hartuko dute autobusa eta Biasterira Santa Maria elizara joango dira lehenik, bertan bisita gidatu bat egingo dutelarik. Ondoren herria ezagutu eta 14:00etan bazkaria egingo dute. Arratsaldean Logroño hiria ezagutuko dute. Bestalde, podologo zerbitzua etzi egingo dela jakinarazi dute.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ORDIZIAKO AZOKA BEREZIA ▶



Ordiziako Garagartza plazan ganadu lehiaketako erakustaldia egiten, ATZO. I. GURRUTXAGA

Ordiziako Azoka Berezian eskualdeko ordezkariak izan dira

Gazta Txapelketan eskualdeko artzainek ez dute zorterik izan; 6.400 euro ordaindu dituzte gazta erdiarengatik

I. GURRUTXAGA/GOIERRIKO HITZA

Giro paregabea zegoen atzo Ordizian. Kaleak jendez gainezka, eta eguraldia, bikaina. Goizeko freskura epeltzen joan zen eguna aurrera zihohan heinean, eta eguerdian bero egiten zuen, Beti Alai pilotalekuan batez ere. Euskal Herri mailan garrantzia ikaragarria duen azoka bat izanik, Tolosaldeko

hainbat abeltzain eta artzain hurbildu ziren bertara. Halere, Gazta Txapelketaren kasuan lehenengo bost postuetan eskualdeko inor ez zen sailkatu. Ordu erdiko atzerapenarekin hasi zen Ordiziako 38. Gazta Txapelketa eta ordubata eta erdiak pasa zirela jakin zen aurtengo artzain irabazlearen izena: Jesus Ansola Mausitxa Elgoibarko artzaina.

Goierriko artzainek eginda-ko gaztak ere epaimahaiaren gustukoak izan ziren nonbait, aurreneko bostetan hiru goierriar sailkatu baitziren. Frantzisko Javier Muñoz Zeraingo artzainak lortu zuen bigarren saria. Hirugarren Rikardo Remiro Eulateko (Nafarroa) artzaina sailkatu zen, laugarren Olaberriako Aizpea gaztandegiko Eli Arrillaga, eta bosga-

rrren Idiazabalgo Aranburu elkarteko gazta sailkatu zen. Guztira 61 artzainek eman zuten txapelketan parte hartzeko izena.

Joan Mari Arzak sukaldari eta epaimahaiko lehendariak aurkeztutako gazten kalitatea goraiatu zuen txapelketa bukatu ondoren. «Munduko gaztarik onena hemen egiten da», esan zuen sukaldariak, aho bizarrak gabe. Ondoren, gazta erdiaren enkantea hasi zen. 3.000 eurotik abiatu zen, eta azkenean, hirugarren eskaintzan, Donostiako Divinus Catering-eko buru Joakin Arratibelek eraman zuen gazta erdia, 6.400 euro ordaindu eta gero.

Herritar guztientzat

Kaleak jendez beteta zeuden atzo Ordizian eta postuak ere jeneroz gainezka, begirada guztien eta aho sapaiei gozagarri. Azoka bisitatu zutenen artean aurpegi ezagunak ere baziren; hala nola, Markel Olano ahaldu nagusia eta Rafa Rueda musikaria Ordizian izan ziren atzo.

Jaiarekin batera aldarrikapenak ere izan ziren. Etxerat elkarrekin presoen Euskal Herritarreza eskatu zuen gazta txapelketan eta frontoira eraman zuten eskaera. Bestalde, hainbat baserriarrek euren postuetan Abiadura Handiko Trenaren aurkako kartelak jarri zituzten, Goierriko AHT Gelditu! Elkarlanak bultzatutako ekimenarekin bat eginez.

Goiza fresko esnatu zen, zerrua urdin-urdin, eta eguerdira-ko giro polita geratu zen. Giro ederra kalean gora eta behera ibiltzeko, lagunartean. Era horretara pasatu zuten goiza azokara inguratutako ehundaka lagunek. Goierriko talogileak ere gelditu gabe aritu ziren lanean jo ta su egun osoan.

Bestalde, Goiztiri AEK euskaltegiak bertako produktuez osatutako lotea zozkatu zuen eta zorbaki saritua 1.488 izan zen.

LEITZA ▶

Mikel Nieve Goierriko Itzulian, asteburuan

Asteburu honetan Mikel Nieve txirindulariak Goierriko Itzulian parte hartuko du. Itzulia Urretxutik abiatuko da ostiral arratsaldean eta igande goizean amaituko da bertan. «Azkeneko saioetan nahiko ongi ikusi dut nire burua eta ea zer bait egiten dudana», adierazi du leitzarrak.

LEITZA ▶

Kantu klaseak hartzeko deialdia egin du Jeikiak

Jeiki abesbatzak ikasturte honetarako kantu klaseak antolatatu ditu. Klaseak urritik aurrera hasiko dira eta Iruñeko Eugenia Etxarren eskolak emanen ditu. Orain arte Jeikiako kideek soilik hartu dituzten arren, aurten deialdia herritar guztiei zabaldu nahi diete. Interesatuak 635 71 42 35 telefonora deitu behar dute, 16:00etatik 18:00etara.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320



Jesus Ansola, Elgoibarko Mausitxa baserrikoak, Gazta Lehiaketako saria jaso ondoren. I. GURRUTXAGA/GOIERRIKO HITZA



Jose Migel Barandiaran plazan kokatutako perretxiko erakusketa ikusten. I. GURRUTXAGA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. Gaztainondo elkarteak Biasterira irteera antolatu du hilaren 12rako. 08:30ean abiatu, Santa Maria eliza eta beste hainbat txoko bisitatu, ardo dastaketa El Fabulista bodegan, bazkaria Marisa jatebixean eta arratsaldea Logroñon. Izen-ematea, elkartearen.

Ibarra. Udalgintzari buruzko batzarra Ibarako Subegi elkartearen 19:30ean, Ibarako EAE-ANVK antolatuta.

Tolosa. Udaberri dantzari taldearen euskal dantza ikastaroak hilaren 14ean eta 15ean hasiko dira. Informazioa, ostiralean Udaberriren egoitzan (Igaralde kalea) 18:00etatik 20:00etara.

Tolosa. Harizpe elkarteak Arantzazura irteera antolatu du hilaren 9rako, bertako Ama Birjinaren eguna. Itziarke eliza bisitatu eta Hostal Itziarren bazkaria izango da. Prezioa: 27 euro (ez bazkideek 30 euro). Izen-ematea, elkartearen bulego orduetan.

Tolosa. Tolargi eta Tolosa Gasako egutegiako argazki lehiaketa antolatu dute. Gaia Natura/Tolosa da eta lanak paperean edo CDan aurkez daitezke bulegoetan. 500 onenak webgunean jarriko dituzte.

Villabona. Pirinioetara irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak hilaren 15 eta 16rako, Monte Perdido (3.355 m) igoz eta Goriz aterpean lo eginez. 60 euro. Izen-ematea, 649-717182 telefonoan 20etatik 22etara. **Zizurkil.** Elbarrenako jaiak: Egitaraua: 11:00etan haurrentzat parkea: 17:00etan buruhandiak eta 17:30ean, haurrentzat jokoak (muralak margotzea, jokoak eta haurren dantza erakusketa); 19:00etan Unsain Anaia, Trikiti Festa; gauerdian Asier Serrano + Apartheid kontzertua.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Abereak protagonista

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Andaluziatik (Espainia) bidali digu bere argazkia Heckor Lunak; Genoveva Muruak, berriz, Ziga aldera egin du bidaia abuztuan



MALAGAKO LA HIGUERA (ESPAINIA) ▶

Hector Luna Lara (Tolosa).

«Abuztuko lehen astean ateratako argazkia da, Malagako El Torcal mendizarraren oinetan bizi diren lagunei egndako bisitan, La Higuera izeneko auzoan. Hemen artaldeak bezala, han ahuntz-taldeak ikusi genituen nonahi. Arratsalde horretan zaintzailearen konpainian topatu genituen. Argazkiaren atzeko aldean ikusten diren berdeguneak olibondoak eta almendronoak dira», azaldu digu Hector parte-hartzaileak.



ZIGA (NAFARROA) ▶

Genoveva Murua Garmendia (Alegia).

Etxean geratzen denik ere izaten da opor garaian. Urrutira joan gabe Euskal Herriak gordetzen ditu paraje ederrak. Eta paraje hauen artean bitxikeria bat ere topatu du Genoveva Murua alegiarrek. Hain zuzen ere, Zigara eginiko txangoan atera zuen argazki hau gure parte-hartzaileak. «Txekorra klausuran atera nuen; Zigako konbentua dela dirudi», azaldu du.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Dolores Artola Artola (Lizartza). Gaur 81 urte. ZORIONAK ETA URTE ASKOAN. Zure seme-alaba, sui-errain eta biloben partetik. Eskerrak bihotz-bihotzez zeran bazalakoia izateagatik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN

Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza
LEITZAN

Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...